



OROIMEN KONTUA OTE?

Jarduera hau baliabideak eta aukerak banatzeko orduan dauden bidegabekerietan sakontzen laguntzeko dinamika bat da.

Aurretiazko jarraibideak

- Talde guztiei testu berbera emango diegu, baina talde bakoitzak jarraibide desberdinak izango ditu mezua pasatzeko. Jarraibideak eman arren zalantzak baldin badauzkate, argitu zalantza horiek, baina ez ozen.
- Eman mezua lehen postuan daudenei (A). Buruz ikasi edo buruan gorde eta itzuli egingo dute mezua. Oharrak idatz ditzakeen bakarra 1. taldekoa da.

Garapena


- Jarri ikasleak hiru taldetan. Ahal dela, hiru taldeek ikasle kopurua bertsua izan dezatela. Talde bakoitzari dagokion jarraibide-orria eman.
- Ziurtatu denek ondo ulertu dituztela jarraibideak. Jar daitezela hiru taldeak ilaran, eserita, hiru taldeak elkarrengandik ahalik eta urrutien jarrita. Lehen postuan daudenei deitu, mezua buruz ikas dezaten.
- Talde guztiek beren mezuak A-tik B-ra pasatu dituztenean, azken postuan daudenek idatzi duten mezua irakurriko dute, bai eta haien taldearen jarraibideak ere. Aurrena 3. taldekoak irakurriko du, eta azkena 1. taldekoa izango da.
- Gero, irakurri jatorrizko mezua, eta gogoeta bultzatu, honelako galderak eginez:
 - Zein taldek eman du mezua ondoen?
 - Egokia al da hiru taldeak berdinduz baloratzea? Zergatik?
 - Nola sentitu zarete jarduera egitean?
 - Denak baldintza berberetan aritu al zarete?
 - Zuen ustez, denen baldintzak berdintsuak izan balira, talde guztiek antzeko emaitzak lortuko al zituzten?
 - Zein hitz aukeratuko zenukete taldeek jarduera honetan izan dituzten baldintzak definitzeko?





1. taldearentzako jarraibideak

Jar zaitetze ilaran, eskema honetan bezala:




A lekuan dagoen pertsonak mezu bat jasoko du, eta ondoan daukanari ahoz pasatu beharko dio. Horrela, azken lekuan (B) dagoen pertsonarengana iritsi arte. Ahots baxuan eman behar duzue informazioa, eta aldi bakoitzean taldeko batek bakarrik hitz egin dezake.

Informazioa eman dizuen pertsonari galderak egiteko aukera duzue, zalantzak argitzeko, eta oharrak idazteko aukera ere baduzue, baina ezin dizkiozue ohar horiek ondoko pertsonari erakutsi, informazioa berari emateko txanda iristen zaizuenean.

Azkenean, B lekuan dagoenak jaso duen mezua idatziko du.

2. taldearentzako jarraibideak

Jar zaitetze ilaran, eskema honetan bezala:



A lekuan dagoen pertsonak mezu bat jasoko du, eta ondoan daukanari ahoz pasatu beharko dio. Horrela, azken lekuan (B) dagoen pertsonarengana iritsi arte. Ahots baxuan eman behar duzue informazioa, eta aldi bakoitzean taldeko batek bakarrik hitz egin dezake.

Informazioa eman dizuen pertsonari galderak egiteko aukera duzue, zalantzak argitzeko.

Papera eta arkatza dituen pertsona bakarra B lekuan dagoena da. Berak idatziko du jaso duen mezua.

3. taldearentzako jarraibideak

Jar zaitetze ilaran, eskema honetan bezala:



A lekuan dagoen pertsonak mezu bat jasoko du, eta ondoan daukanari ahoz pasatu beharko dio. Horrela, azken lekuan (B) dagoen pertsonarengana iritsi arte. Ahots baxuan eman behar duzue informazioa, eta aldi bakoitzean taldeko batek bakarrik hitz egin dezake.

Jasotzen duzuen informazioa buruan gorde eta ondokoari eman behar diozue, behin bakarrik. Ezin duzue errepikatu, ez galderarik egin, ez argibiderik eskatu.

Papera eta arkatza dituen pertsona bakarra B lekuan dagoena da. Berak idatziko du jaso duen mezua.

TESTUA

«FAO erakundearen arabera, munduan nahikoa janari dago, baina gaur egungo biztanleriaren bikoitza elikatzeko ere. Nahikoa eta gehiegi ekoizten da. Baina, hala ere, oraindik 800 milioi pertsona inguru daude jatekorik gabe; ez zaie behar bezala aitortzen elikatzeko oinarrizko eskubidea».



KALKULATU, IKERTU, HAUSNARTU... IRAILA

Azaldu ikasleei zer den Giza Garapenaren Indizea (GGI). Dagokion posterra erabili; hobeto ulertuko dute horrela. Infografia proiektatu, eta komentatu bertan agertzen diren datuak.

- Zuen ustez, ondo banatuta al dago dirua?
- Zuen ustez, taldeetako hirutan ager zaitezke?
- Aztertu dirua banatzeko beste modu batzuk. Bila ezazue dirua zuzentasun handiagoz banatzeko beste modu bat:
- Pertsona bakoitzari zenbat tokatuko litzaioke?
- Gure herrialdea 19 zenbakia dutenen taldekoa da; beraz, bakoitzari 4,50 € egokituko litzaizkizueke. Beste modu batera banatzean:
 - Konturatzen al zarete hori zer izango litzatekeen zuen «ongizaterako»?
 - Prest egongo zinatekete banaketa hori egiteko?

OTORDUAK BETETZEN

Jarduera hau elikagaiak munduan zein modu bidegabean banatuta dauden konturatzeko dinamika bat da.

Aurretiazko jarraibideak

- Inprimatu A txantiloia ahalik eta tamaina handiengan, eta talde bakoitzari ale bat eman. Prestatu koloretako arkatzak eta talde bakoitzari hiru eman (gorria, urdina eta horia).
- Talde bakoitza bere GGIn arabera sailkatuta egongo da, baina hasieran ez dute jakingo: 1. taldeak GGI oso altua izango du, 2. taldeak GGI altua, 3. taldeak GGI ertaina eta 4. taldeak GGI baxua. Eman talde bakoitzari bere fitxa.

Garapena

- Banatu ikasleak 4 taldetan.
- Talde bakoitzari bere materiala eman, lan-fitxan agertzen diren jarraibideak ozen irakurri, eta dauzkaten zalantza guztiak argitu.
- Taldeek beren lana egitean, jarri txantiloiak denen agerian. Bultzatu gogoeta, honelako galderak eginez:
 - Talderen bati zaila gertatu al zaio elikagaiak banatzea? Zergatik?
 - Zer iruditzen zaizue deigarriena elikagaiak banatzeko moduari dagokionez?
 - Egokia iruditzen al zaizue elikagaiak banatzeko modu hori? Pozik al zaudete egokitu zaizuenarekin?
 - Orekatuak iruditzen al zaizkizue bertan dauden dietak? Zergatik?
 - Elikagaiak banatzeko modu hori ausazkoa da. Gauza bera gertatzen al da jaio garen lekuarekin? Ikusten duzuenaren arabera, horrek eragina al du gure elikaduran? Zer ondorio izan ditzake pertsona baten bizitzan?



KALKULATU, IKERTU, HAUSNARTU... URTARRILA

Infografia honetan, biztanle bakoitzak urtean kontsumitzen dituen produktuak agertzen dira, herrialdeen taldeen GGIn arabera multzokatuta. Hona hemen datu osoak¹:

Produktuak	Herrialdeak, GGIn arabera				Espainiako datuak
	OA	A	E	B	
Garia	94	84	59	30	94
Arroza	14	27	48	40	8
Artoa	7	16	36	35	2
Behikia	18	11	8	6	12
Txerriak	31	11	7	2	49
Oilaskoa	29	30	13	5	29
Arraina	21	17	15	10	29

- Zer da irudia ikusi orduko deigarriena iruditzen zaizuena?
- Zer elikagai mota adierazten dituzte zutabeek herrialdeen taldeetan?
- Espainiako datuak bat al datoz zuen dietarekin? Adibidez: jaten dituzuen zer elikagaitan dago garia? Asteazken zenbat aldiz jaten duzue haragia? Eta arraina? Denen artean gogoeta egin.

BIGARREN HEZKUNTZAKO MAILA

Herrialdeen talde bakoitzeko biztanle kopurua kontuan hartuta, GGI oso altua daukaten herrialdeetako biztanleen kontsumo-ohiturak (biztanleen % 19) munduko biztanle guztiengana zabalduko balira (7.300 milioi pertsona):

- Elikagai mota bakoitzetik zenbat beharko litzateke?
- Zenbat pertsona elikatu ahal izango lirateke 2014an ekoiztutakoarekin? (azaroko infografiako datuak).

¹ Iturria: FAOSTAT erakundearen webgunea, 2013ko datuak, eskuragarri dauden azkenak.

A TXANTILOIA: otorduak

Gosaria																		
Hamaiketakoa																		
Bazkaria																		
Merienda																		
Afaria																		

1. TALDEARENTZAKO LAN-FITXA

Dauzkazuen koadroak A txantiloiko otorduetan banatu behar dituzue. Elikagai bakoitza dagokion kolorez margotu behar duzue. Gehienez ere koadro hauek margo ditzakezue kolore hauekin:

Haragia , kolore gorria	26 koadro
Arraina , kolore urdina	7 koadro
Zerealak , kolore horia	38 koadro

GARRANTZITSUA:

Dauzkazuen koadro guzti-guztiak jarri behar dituzue txantiloian. Ez da beharrezkoa otordu guztiak betetzea; baten bat hutsik utz dezakezue.

Adi! Koadro gorri bat ez da haragi puska baten baliokidea, ezta koadro urdin bat arrain baten baliokidea ere, eta abar. Ez ezazue banaketa hori pentsatuz egin.

2. TALDEARENTZAKO LAN-FITXA

Dauzkazuen koadroak A txantiloiko otorduetan banatu behar dituzue. Elikagai bakoitza dagokion kolorez margotu behar duzue. Gehienez ere koadro hauek margo ditzakezue kolore hauekin:

Haragia , kolore gorria	17 koadro
Arraina , kolore urdina	6 koadro
Zerealak , kolore horia	42 koadro

GARRANTZITSUA:

Dauzkazuen koadro guzti-guztiak jarri behar dituzue txantiloian. Ez da beharrezkoa otordu guztiak betetzea; baten bat hutsik utz dezakezue.

Adi! Koadro gorri bat ez da haragi puska baten baliokidea, ezta koadro urdin bat arrain baten baliokidea ere, eta abar. Ez ezazue banaketa hori pentsatuz egin.

3. TALDEARENTZAKO LAN-FITXA

Dauzkazuen koadroak A txantiloiko otorduetan banatu behar dituzue. Elikagai bakoitza dagokion kolorez margotu behar duzue. Gehienez ere koadro hauek margo ditzakezue kolore hauekin:

Haragia , kolore gorria	9 koadro
Arraina , kolore urdina	5 koadro
Zerealak , kolore horia	47 koadro

GARRANTZITSUA:

Dauzkazuen koadro guzti-guztiak jarri behar dituzue txantiloian. Ez da beharrezkoa otordu guztiak betetzea; baten bat hutsik utz dezakezue.

Adi! Koadro gorri bat ez da haragi puska baten baliokidea, ezta koadro urdin bat arrain baten baliokidea ere, eta abar. Ez ezazue banaketa hori pentsatuz egin.

4. TALDEARENTZAKO LAN-FITXA

Dauzkazuen koadroak A txantiloiko otorduetan banatu behar dituzue. Elikagai bakoitza dagokion kolorez margotu behar duzue. Gehienez ere koadro hauek margo ditzakezue kolore hauekin:

Haragia , kolore gorria	4 koadro
Arraina , kolore urdina	3 koadro
Zerealak , kolore horia	35 koadro

GARRANTZITSUA:

Dauzkazuen koadro guzti-guztiak jarri behar dituzue txantiloian. Ez da beharrezkoa otordu guztiak betetzea; baten bat hutsik utz dezakezue.

Adi! Koadro gorri bat ez da haragi puska baten baliokidea, ezta koadro urdin bat arrain baten baliokidea ere, eta abar. Ez ezazue banaketa hori pentsatuz egin.